

Hitz egin dezagun prostituzioaz



MARIA COLERA INTXAUSTI
ITZULTZAILEA

Hiru dira, eta ez bi, prostituzioaren inguruko jarrera nagusiak: erregulazionismoak lanbide bat gehiagotzat dauka prostituzioa eta legeztatu egin nahi du “sexu-langileen” eskubideak bermatzeko xedez; prohibizionismoak prostituzioaren eta prostituzioan ari diren emakumeen aurka jarduten du; abolizionismoak, azkenik, prostituzio-eskaria desagerrarazi nahi du. Nola? Proxeneta eta putazaleak zigortuz eta prostituzioan diharduten emakumeei alternatibak eskainiz eta lagunduz. Horretarako ezinbestekoa da Atzerri Legea indargabetzea, lan erreforma atzera botatzea eta poliziaren jazarpena geldiaraztea.

Prostituzioa sexu-lantzat hartzeak sexuari buruzko ikuskera hau normaltzen du: gizonak beren zakila emakumeen alu, aho eta ipurtzuloetan sartzeko eskaera asetzea dela sexua, emakumeon desirak gorabehera. Horratx kapitalismoaren magia: noiz eta baimen berriazko eta ez baldintzatuaz hainbeste hitz egiten den garaiotan, transakzio ekonomikorik ezean bortxaketa litzatekeena utzi egiten diola bortxaketa izateari tartean dirutrukea badago.

Bizitza eta pertsonen zaintza erdigunean jartzen irakatsi digu feminismoak, eta prostituzioa ez bezala, besteren laguntza behar duen norbaiten ipurdia garbitzea behar sozial bat da, eta egiten duenarentzat baldintzarik onenak lortzeko borrokatu beharko dugu, ez jendea zaintzeari uzteko

Askotan argudiatzen da ipurdiak garbitzea ere ez zaiola gustatzen inori. Bizitza eta pertsonen zaintza erdigunean jartzen irakatsi digu feminismoak eta, prostituzioa ez bezala, besteren laguntza behar duen norbaiten ipurdia garbitzea behar sozial bat da, eta egiten duenarentzat baldintzarik onenak lortzeko

borrokatu beharko sugu, ez jendea zaintzeari uzteko.

Bestalde, prostituzioan dihardutenei entzun behar zaiela esaten da maiz, baina gehien entzuten diren ahotsak haren aldekoak dira eta, aukera librearen mantra neoliberala errepikatuz, esaten dizute jardun boteretzaile bat dela, “aukera” horretara bultzatzen duten baldintza materialen abstrakzio erabatekoa eginez. Kontuan hartzekoa da prostituzioa erregularizatu den herrialdeetan, estatu proxenetak etekina ateratzen diola jardun hori zergapetuz eta, beraz, ez da pentsatzekoa ahalegin handirik egingo duenik pobreziafaren feminizazioari aurre egiteko, horixe denean diru iturri bihurtu duen prostituzio industriaren lehengai nagusia.

Azkenik, galdera bat egin behar dugu geure buruari: benetan uste dugu gizonak emakumeen gorputza eskuratzeko duten eskubidea naturalizatu, legitimatu eta betiketzeak gizarte berdinzale bat lortzen lagunduko digula, putazaleek –gero eta gehiago eta gero eta gazteagoak– emakumeok objektu sexuatzat gauzkatzen gizarte bat indartu beharrean? ●

blogetan!
BLOG IZARREN BILA

**Bozka ezazu
blogik gustokoena**

Otsailaren 25etik
martxoaren 24a bitarte

SARIAK

Bernat Vidal artistaren garaikurra
200 euroko diru txekoa
ARGIA kolaboratzeko aukera

azkue
FUNDAZIOA

KATEGORIAK Kultura / Gizartea / Zientzia / Aisia / Politika / Teknologia

blogetan.eus